

# getxoBerri



**Getxo**

*bizi ezazu*

#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1.497 zb.  
www.getxo.net

Apirilak 19  
>> Apirilak 29

2018

## / Nabarmenezkoak

- > Etxegabeentzako Euskal Estrategia garatzeko erakunde arteko akordioa (2. or.)
- > Dena prest, beste urte batez, Liburu Azoka ospatzeko (5. or.)
- > Bizkaiko txapelduna, Getxo Arrauneko nesken batela (4. or.)



**Jazz kontzertua.** Larunbata, hilak 28, 20:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Pío Lindegarden omenezko kontzertua, Andy Sheppard eskutik. 12€.

**Haurrentzako antzerkia.** Igandea, hilak 29, 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Safari", La Bufandarekin. 5€.

**A-**  
**GENDA**

Udalak 416.648 euro jaso zituen

## 52 langabetu kontratu dira, Lanbidek emandako diru-laguntzari esker

Udalak 52 langabeturen kontratazioak kudeatu ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuetik enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako 2017ko ekitaldiko diru-laguntzen deialdiak emandako 416.648 euroko diru-laguntzari esker. Diru-laguntza hori erabili da, alde batetik, enplegua sustatzeko, Lanbiden izena emanda zuten Getxoko 15 langabetu zuzenean kontratatuzko, eta bestetik, Getxoko enpresei kontratazio-laguntzak emateko. Diru-laguntza horri esker 37 pertsona kontratu dira. Kontratuak 2017an hasi ziren eta gehienak oraindik daude indarrean.

### 37 laguntza enpresei

65 enpresak 76 eskaera aurkeztu zituzten langabetuak kontratatuzko. Horietatik 39 ukatu egin ziren, 14 betebeharreko baldintzak ez betetzeagatik eta gainontzeko guztiak aurrekontu-mailegua gainditzeagatik.

Emandako 37 diru-laguntzak izan dira langabetuei hiru eta sei hilabetezko kontratuak egiteko, haietatik 25 emakumezkoak izan dira (%67); horrela, bete egiten da Lanbidek ezarritako baldintza, hau da, gutxienez kontratatutako %40 emakumezkoak izatea. 6 kontratu 55 urtetik gorakoentzat izan dira eta beste 2 iraupen luzeko 2 pertsonarentzat. Luzapenari dagokionez, kontratuak izan dira: sei hilabetezkoak (32), hiru-sei hilabetezkoak (3) eta



hiru hilabetezkoak (2).

### Enplegua sustatzeko 15 kontratu

Enplegua sustatzera bideratutako diru-laguntzaren helburua da bultzatzea lan-merkatuan sartzera lane-ratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, aldi baterako lan esperientzia baten bidez, beraien prestakuntza, gaitasun pertsonalak eta motibazioa indartzeko.

Horiek horrela, 15 langabetu kontratu dira hamar udal-proiektu garatzeko: 9 emakume, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten 5, eta 55 urtetik gorako 3 pertsona (batzuek horrelako ezaugarri bat baino gehiago betetzen zituzten). Eskatutako profila hurrengo hauek izan ziren: enpresa aholkularia (1), artxiboen edota liburutegien administrazio langilea (4), dokumentu- digitalizatzailea (1),

liburutegiko edota dokumentazioko laguntzailea (1), artxiboko laguntzailea (1), administrari komertziala (1), administrari tekniko (1), zaindaria (2), margolariak eta peoiak (4). Kontratazio horietarako guztietarako hautagaien aukeraketa Euskal Enplegu Zerbitzuan egin zen, erregistratutako eskaintzaren bidez, ezinbesteko baldintza baitzen langabetua izatea eta Lanbiden izena emanda egotea.

## Romo Kultur Etxera bisita gidatuak hasi dira

Romo Kultur Etxea-RKE berriaren zerbitzu batzuen irekiera dela eta, apirilaren 19tik, osteguna, maiatzaren 8ra zenbait bisita gidatu izango dira. Bisiten iraupena 45 minutukoa izango da, gutxi gorabehera, eta taldeak, 20 lagunekoa, gehienez.

Bisiten egutegia honako hau izango da:

- Apirilak 19 (osteguna); 12:00etan - euskaraz
- Apirilak 24 (asteartea); 17:30ean - gaztelaniaz
- Apirilak 26 (osteguna); 12:00etan - euskaraz
- Maiatzak 3 (osteguna); 12:00etan - gaztelaniaz
- Maiatzak 8 (asteartea); 17:30ean - euskaraz

Eraikin berria ezagutu nahi dutenek izena eman ahal izango dute 94 466 00 22 telefonoaren edota [rke@getxo.eus](mailto:rke@getxo.eus) e-postaren bitartez, izen-abizenak eta bisitaren data zehaztuta.







#### APIRILAK 19 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** Romo Kultur Etxeko haur liburategian, 18:00etan, "Queeridos peluches" Cataplina taldearen eskutik.

**Liburuaren aurkezpena.** Zurrumurruen kontrako Estrategia eta Liburutegi Topaleku. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Saïd El Kadaoui-ren "No" liburuaren aurkezpena.

**Literatura solasaldia.** Algortako Kasi-noan, 19:45ean, Kultur Etxearen sortze-idazketa tailerraren eskutik, Kazuo Ishiguro-ren "No me abandones" liburuaren inguruan. Sarrera dohainik.

**Getxo Zuzenean!** 20:00etan, Minimaren kontzertua (pop) Kirol Portuko Silver's Tavern-en.

**Gizatiar.** Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Hitzaldia: "Problemas en el sistema músculo-esquelético". Hizlaria: Carla Rubio (traumatologoa). 18:15ean, Romoko San Jose parrokiako lokaletan.

**"Nahi dudalako".** Solasaldia Iban Garate aurkezlearen eskutik, Divino Pastor ikastetxean, DBHko 3. eta 4. mailetakoa ikasleentzat, Udalak antolatuta.

**Euskaraldia.** Bilera Romoko Kultur Etxean, 19:00etan. Informazioa: [uskaraldiagetxon@gmail.com](mailto:uskaraldiagetxon@gmail.com)

**Hitzaldia.** "Erromo iraunkorra. Etxebizitza eta lurzuraren politika iraunkorraren alde". Hizlaria: Fernando Hevia (arkitekto hirigilea). 19:00etan Nagusien Etxean (Lope de Vega 12). Antolatzailea: Ibar Nagusien Etxea, Erromoko Auzokideen elkartearen eta Erromo Plataformaren laguntzarekin.

#### APIRILAK 20 OSTIRALA

**Liburu Azoka.** Algortako Geltokia plazan. Apirilaren 23ra arte. 17:00etatik 21:00ak arte. **Erakusketa solidarioa** "Getxoko ikuspegiak" (23ra arte) **Argazki erakusketa** "Portu Zaharreko albumak" (23ra arte). **Poesia-arratsaldea** Aixerrota institutuaren eskutik (@LeoTwtiteo, haiku-tailerra, Itziar Minguez poetarekin topaketa eta poesia errezitaldia).

**Zine Kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Sebastián Lelioren "Una mujer fantástica" filmaren proiektzioa eta foruma. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

#### APIRILAK 21 LARUNBATA

**Liburu Azoka.** Algortako Geltokia plazan. Apirilaren 23ra arte. 11:00etatik 14:30 arte eta 17:00etatik 21:00ak arte. **Storytime** (ipuin-kontaketa ingelesez). 11:00etan "The far west" Algortako Kids&Us-en eskutik. Sarrera dohainik. **Ramiro Pinillari buruzko literatura-ibilbidea.** 11:30etik aurrera. (izena emateko [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)) Tailer-topaketa. 17:30ean "Sin fronteras, la diversidad: ¡a jugar!" (gaztelaniaz) Imaplakerekin. **Liburu-aurkezpena.** 19:30ean, Gustavo Iduriagaren "Getxo territorio Pinilla".

**Nazioarteko Dantza Eguna.** Algortako San Nikolas plazan. 12:00etan dantza-eskola irekia eta koreografiatuak. 19:30ean dantzaldia.

**Kontzertu sakroa.** 20:00etan, Areetako Ama Mesedeetako elizan, Zofoak abesbatzaren emanaldia. Sarrera dohainik.

#### APIRILAK 22 IGANDEA

**Liburu Azoka.** Algortako Geltokia plazan. Apirilaren 23ra arte. 11:00etatik 14:30 arte eta 17:00etatik 21:00ak arte. **Ramiro Pinillari buruzko literatura-ibilbidea.** 11:30etik aurrera. (izena emateko [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)) **Irakurketa dramatizatua.** 12:30ean "Homer, Iliada" Utopian taldearen eskutik. **Topaketa azokaren idazleekin,** 13:30ean. **Ipuin-kontaketa musikala.** 18:00etan "Kontu kantari: arrantzaleen biloba" eta "Hiru sardinen abentura izugarria". **Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El bebé jefazo". Gaztelaniaz. Adin guztientzat. 2,10€.

#### APIRILAK 23 ASTELEHENA

**Liburu Azoka.** Algortako Geltokia plazan. 10:00-14:00 eta 17:00-20:00. **XX. Jendaurreko irakurketa etengabea.** 10:00etatik aurrera, Getxoko ikasleen eskutik. **Haurrentzako ipuin-kontaketa.** 18:30ean "Ipuin begirada ezkutua". Euskaraz.

**Erakusketa.** "Arteskola. 25garren urteurrena". Haurren eta helduen erakusketa. Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Maiatzaren 19ra arte.

**Gizatiar.** Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Merkatu txikia, Romoko San Jose parrokiako lokaletan. 11:00-13:30 eta 17:00-20:00. Hilaren 28ra arte.

**Hitzaldia.** Gaia: "Retomando el vuelo (el duelo)". Hizlariak: Víctor Landa eta J.A.García (medikuak). 19:30ean, Algortako Kultur Etxean. Antolatzailea: Mugabari-Garapen pertsonala eta komunitarioaren aldeko elkartea.

**Hitzaldia.** "El tráfico de armas desde el Puerto de Bilbao. La guerra empieza aquí". Hizlariak: Ina Robles (Greenpeace) eta Luis Arbieta (Sinope eta Ongi Etorri Errefuxiatuak). 19:00etan Gobe-lurre boluntariotza zentroan (Romo). Sarrera dohainik. Informazio gehiago: <https://sinopeblog.wordpress.com/adimen-emozionala>. "Mediación y solución de conflictos". 15:00etatik 16:00ak arte. Aretxondo elkartearen lokaletan, Basagoiti Etorbidea 73. Tel: 94 656 74 19

#### APIRILAK 26 OSTEGUNA

**Getxo Zuzenean!** 20:00etan, Charlie Coshen kontzertua (rocka) Areetako Glass Grill Urbano tabernan.

**Gizatiar.** Romo-Areetako giza- eta kultura-elkartea. Apirilko jaia eta urtebetetze ospakizuna, 18:15ean, Romoko San Jose parrokiako lokaletan.

#### APIRILAK 27 OSTIRALA

**Pre-Fant.** Bilboko Zinemaldi Fantastikoa dela eta, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Haritz Zubillagaren "El ataud de cristal" filmaren proiektzioa eta foruma. 16 urtetik gorakoentzat. Zuzendariak hartuko du parte. 2,90€.

#### APIRILAK 28 LARUNBATA

**Jazz kontzertua.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, Pío Lindegaarden omenezko kontzertua, Andy Sheppardren eskutik. 12€.

#### APIRILAK 29 IGANDEA

**Haurrentzako antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Safari", La Bufandaren eskutik. Gaztelaniaz. 5€.

- **Ingelesko eskolak.** Mintza-praktika eta gramatika. Bertakoa ez den irakaslea. Tel.: 94 496 30 83. Mercedes.

- **Neska arduratsua** lan bila dabil. Etxeko beharretarako, adinekoak, umeak...zaintzeko. Tel.: 632 70 16 44.



- **Lan bila nabil** barneko gisa. Lanaldi osoa. 3 urteko esperientzia. Tel.: 631 96 05 18.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauraritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

# Etxegabeentzako Euskal Estrategia garatzeko erakunde arteko akordioa

Udalak 2018-2021rako Etxegabeentzako Euskal Estrategia garatzeko erakunde arteko akordioa sinatu du aste honetan. Kanean lo egiten duten petrona kopurua gutxienez %20 murriztea helburu duen akordioa hurrengo erakundeek sinatu dute: Eusko Jauraritzak, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-

aldukiak, EUDELe, eta Bilboko, Vitoria-Gasteizko, Donostiako, Barakaldoko, Getxoko, Portugaleteko, Irungo, Santurtziko eta Laudioko udalek. Hauek Estrategia prestatzeko urretiko lana bateratu dute eta, horretarako, Euskadiko etxe-gabetasunari buruzko diagnostikoa izan dute. Ondorio nagusietako bat

izan da oraindik egotzen zaien irudi estereotipatua gorabehera, etxegabeak ez direla talde homogeneoa, lau kausa-multzo handien arteko elkarreragin dinamikoaren ondorioz sortutako prozesua baita, hain zuzen ere, egiturazkoak, instituzionalak, erlazionalak eta pertsonalak, eta horiek, normalean, adi berean edo elkarren artean konbinatuta agertzen dira.

Estrategiak zazpi helburu orokor ditu, eta 50 jarraibide zehatz proposatzen ditu; horiek bederatzi ardatzen inguruan taldekatzen dira. Orain erakunde sinatzaileek 12 hileko epea dute beren plana diseinatzeko, jarduketa zehatzekin.

Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/comunicacion/notas-prensa>



## Diru-laguntzak berdintasuna sustatzeko

Udalak 27.972€ zuzenduko ditu aurten eremu guztietan emakumeen parte hartzea errazten duten, eta udalerriko gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten programetarako diru-laguntzen deialdirako, IV. Berdintasunerako Planak jasotzen duenez. Eskakizunak aurkezteko epea maiatzaren 18an amaituko da.

Lehenengo diru-laguntza lerroak 19.580€ banatuko ditu emakumeen elkarten jardura arruntaren funtzionamendu edota mantentzeko, eta bigarrenak 8.391€ emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen artean. Eskakerak (gehienez bat lerroko) HABetan eta legeak aurreikusten dituen tokietan aurkeztu behar dira. Informazioa: <http://www.getxo.eus/eu/igualdad/asociacionismo/subvenciones-igualdad>

## Euskaraldiaren mahaingurua

Datorren asteartean, apirilak 24, 19:00etan *Zelan egin dute beste herri batzuetan euskararen erabilera areagotzeko?* izenburuko mahaingurua izango da Algortako Kultur Aretan. Udalak eta EGIZU eta Bizarra Lepoan, euskara elkarteek udalerrian sustatzen duten Euskaraldia ekimenaren barruan kokatzen da hitzaldia.

Ekitaldian Derioko, Aguraineko eta Lasarteko euskararen aldeko ekimenetako ordezkariak hartuko dute parte, eta *Tor* magoak moderatzaile lana beteko du.



## Hezkuntza- eta kultura-trukea

Holandako Amersfoort-eko T Atrium institutuko 61 ikasle, lau irakasle lagunduta, Getxo bisitatzen ari dira egun hauetan Algortako San Nikolas ikastolak sustatutako hezkuntza- eta kultura-truke bati esker. Astelehenean, apirilaren 14an, heldu ziren, Udal-eremuan egin zieten harrera eta 21ean bere herrialdera

itzuliko dira. Horrela, 16 urteko gazte horiek San Nikolas ikastolako ikasleek otsailean egin zieten bisita bueltatzen diete. Bestalde, egun hauetan Artaza-Romo institutua ere bere urteko trukea egiten ari da ikasle alemaniarrekin eta, laster, Danimarkako ikasleak helduko dira.



## Liburu Azoka / Feria del Libro

GETXO Algortako Geltokia Plaza  
Plaza Estación de Algorta

2018  
apirila / abril

20 ostirala / viernes  
17:00 - 21:00

21 larunbata / sábado  
11:00 - 14:30 & 17:00 - 21:00

22 igandea / domingo  
11:00 - 14:30 & 17:00 - 20:00

23 astelehena / lunes  
11:00 - 14:00 & 17:00 - 20:00



### Apirilaren 20tik 23ra bitartean, Algortako Geltokia plazan Dena prest, beste urte batez, Liburu Azoka ospatzeko

Apirilaren 20tik 23ra bitartean, Algortako Geltokia plazan, Liburu Azokaren beste edizio bat egingo da. Udal liburutegiak eta Getxoko zortzi liburu-dendak hartuko dute parte eta aukera izango dugu bertan azkeneko nobedadeak erosteko (% 10eko deskontua izango dute liburuek). Egitarauan umeei eta nagusiei zuzendutako jarduerak daude prest eta elebidunak eta doakoak izango dira. Egunero egongo dira jolasak, eskulan tailerrak, irakurketa eta makillaje txokoak, jolas erraldoiak, ludoteka... Aukera izango dugu *Getxoko ikuspegiak* erakusketa solidarioa ikusteko, Zirri-Marra Arte Tailerraren ikasleen eskutik. Horien lan originalak 10 eurotan salduko dira eta bildutako dirua Aspanovas Bizkaiari emango zaio. Halaber, erakusgai egongo da *Portu Zaharreko albumak* argazki erakusketa, Begoña Salazarren eskutik.

#### @LeoTwtteo

Ostiralean, hilak 20, Aixerrota institutuko ikasleek poesia-arratsaldea egingo dute. 17:00etatik 18:00etara bitartean irakurketa-klub birtuala aurkeztuko dute, baita Itziar Mínguezren obra poetikoaren inguruko lankidetzaz-irakurketa proiektua ere. 18:00etatik 19:30era haiku tailerra egingo dute (Japonian jatorria duen konposizio poetikoa), eta ondoren, Itziar Mínguez poetak poesia-errezitaldia egingo du.

#### Asteburua

Larunbatean, hilak 21, egitaraua zabalduko da. Goizean, umeentzako

ipuin-kontakteta, ingelesez, egongo da eta Ramiro Pinillari buruzko literatura-ibilbidea, hurrengo egunean errepikatuko dena. Era berean, Gustavo Iduriagaren *Getxo territorio Pinilla* liburua aurkeztuko dute, 19:30ean. Igandean, hilak 22, 12:30ean, Utopian konpainiak *Homero, Iliada* irakurketa dramatizatua egingo du eta 13:30ean topaketa egingo da Azokako idazleekin. Arratsaldean, 18:00etan, ipuin-kontalaria izango dugu, euskaraz.

#### Irakurketa publikoa

Astelehenean, hilak 23, azken jardunaldian, Liburu Azokan ohikoa den Irakurketa Publiko Jarraitua egingo da, zeinetan udalerriko hainbat ikastetxe publikok hartuko duten parte. Arratsaldean, 18:30ean, beste ipuin-kontakteta bat egingo zaie umeei. Egitarau osoa: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

### “Tendríamos que haber empezado de otra manera” komediaren estreinaldia



### “70 Binladens” pelikularen grabazioak eragina izango du trafikioan

Koldo Serra zuzendari getxotarraren 70 Binladens pelikularen grabaketa dela eta, trafikioan eraginak egongo dira Algortako eta Andra Mariko hainbat lekutan. Era horretan, ostegunean, hilak 19, grabaketa Galean eta Algortako Skate Park-ean egingo dute. Galean, 07:00etatik 17:00ak arte, errepide nagusian filmatuko dute. Hori dela eta, aldizkako etenak egongo dira trafikioarentzat eta oinezkoentzat. Skate Park-a (Arrigunagako jeitsiera eta Altube Kalea) itxita egongo da publikoarentzat 14:00etatik 20:00ak arte. Hemen ere, trafikioan aldizkako ete-

nak egongo dira eta oinezkoentzako sarrera murriztua.

Ostiralean, hilak 20, Galean, 07:00etatik 19:00etara arte, jabeago pribatu batean filmatuko dute; hori dela eta, inguruetan sor daitezkeen zaratak kontrolatuko dituzte. Era berean, 16:00etatik 20:00etara, trafikioan aldizkako etenak egon daitezke eta oinezkoak igarotzea murriztua. Azkenik, larunbatean, hilak 21, 08:00etatik 15:00ak arte, jabeago pribatu jarraituko dute grabatzen, zaratak kontrolatuko dituzte eta litekeena da trafikioarentzat aldizkako eteteak egitea.

### Bertoko akademia eta taldeek Nazioarteko Dantza Eguna ospatuko dute

Nazioarteko Dantza Eguna ospatuko da Kultur Etxearen eta bertoko dantza akademia eta taldeen eskutik apirilaren 21ean, larunbata. Hori dela eta, Areetako Geltokia plazan dantza-eskola irekia izango da goizean eta, arratsaldean, dantza-erakustaldia.

Dantza-eskola irekian adin guztietako lagunek parte hartu dezakete. 12:00etan hasiko dira eskola irekiak eta horietan parte-hartzaileek barra-ariaketak egin eta zenbait estilo ikasteko aukera izango dute: flamenkoa, jaza eta street dantzak, besteak beste. Gainera, haurrentzako klaseak ere izango dira.

Dantza-erakustaldia 19:30ean hasiko da eta horretan parte hartuko dute Getxo Kirolakek eta San Nikolas ikastolak antolatutako ikastaroetako ikasleak eta baita honako akademia hauek: Ana Lararen Dantza Estudioa, Romoko Carmen Veraren Dantza Estudioa, Dantzarte, Areetako Flamenko Eskola, Utopian eta Estudio Danco. Ordu bete eta erdiz estilo anitzeko ko-



reografiak eskainiko dira, esaterako: flamenkoa, klakea, dantza garaikidea, dantza modernoa, urban dantzak, neoklasikoa, lirikoak eta lindy hopa.

### “Jazzical” kontzertua, Norbert Káel hungariar pianistarekin

Hungariak Madril duen Enbaxadak eta Euskadin duen Kontsulatuak, Andrés Isasi Musika Eskolaren laguntzarekin, *Jazzical* kontzertua antolatu dute. Norbert Káel pianistak eskainiko du, Hungariako musika klasikoaren tradizioak zabaltzeko asmoz. Errezitaldia datorren asteartean izango da, hilaren 24an, 19:30ean, Areetako Musika Eskolan bertan. Kontzertua hasi baino lehenago eskola magistrala emango die zentroko hamar ikasle aurreratuei; eskola 16:00etatik 17:00etara emango du. Kontzertua ikusteko gonbidapena behar da, Musika eskolan jaso beharrezkoa.

#### Norbert Káel eta programa

Norbert Káel Hungarian jaio zen eta umetatik musika klasikoa eta jazz ikasteko gogoia izan zuen. Zazpi urterekin musika eskola bateko ikaslea zen, eta 14rekin Béla Bartóken Musika Institutuan onartu zuten. Budapesteko Ferenc Liszt Musika Akademiaren lizentziatu zen. Nazioarteko entzuleek bere interpretazio berritzaileak txalotzen dituzte eta bere kontzertuetan, bat-batean, musika klasikoa eta jazz nahasten ditu.

Areetako emanaldian, Bach, Kern, Davis, Coltrane, Scriabin eta Bartóken lanak joko ditu.





Maiatzaren 9ra arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak, kiroldegiko bulegoetan edo interneten bidez

## Getxo Kirolakek udako ikastaroetan aurretik izena emateko epea ireki du

Getxo Kirolakek abonatuentzat 1.600 plaza baino gehiago eskainiko ditu udako ikastaroetan, uztailean eta abuztuan zehar. Programazioaren barruan, tenis, padel, futbol eta igeriketa ikastaroak ez ezik, haurrentzako kirol-jarduerak ere aurkitzen dira. Iaz bezala, haurrentzako aisiako azken ikastaroetan, egunero ordu bat ingelesez egingo da hurrekin, eta haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da jarduera-orduen ordu erdi bat lehenago eta ondoren. Gainera, kirolen udal-erakundeak *Kirolet@n* ikastaroa antolatuko du, Gobelan nahiz Faduran, 10 eta 14 urte artekoentzat. Ikastaro horrek kirol anitzeko jarduerak izango ditu eta nerabezaroan jarduerak fisikoa praktikatzeko du helburu. Nobedade gisa, Getxo Futbol Eskolak (Faduran) eta Romo F.C.-Arenas Clubak (Gobelan) *Futboleando* ikastaroak emango dituzte.



### Inskripzioak eta modua

Maiatzaren 9ra arte aurkeztu ahal izango da eskaera Faduran eta Gobelan, herritarrak artatzeko dauden bulegoetan edo web orrialdearen bitartez. Izapidea online egiteko, NAN elektronikoa edo norberaren sarbide-gakoa beharko dira; azken hori kiroldegietako bulegoetan eskatu behar da, asteko edozein egunetan, 8:00etatik 21:30era bitartean. Online sarbide-gakoarekin, instalazioak erreserbatu ahal izateaz gain, kirol-ikastaroen altak eta bajak ere kudeatu ahal izango dira, deialdi guztietan –udako

ikastaroetakoan zein denboraldiko ikastaroetakoan-.

Maiatzaren 11n, zozketaren emaitza argitaratuko da web orrialdean eta Fadurako eta Gobelako informazio-tauletan. Plazak automatikoki esleituko dira, eta, eskaera dagoen bitartean, pertsona bakoitzak soilik ikastaro batean izena eman ahal izango du. Ondoren, plaza libreak geratuz gero, esleipen-sistemak prozedura errepikatuko du, eta pertsona bakoitzeko hiru ikastaro esleitu ahal izango dira. Maiatzaren 11tik 17ra, erreklamazioak, bajak eta ordutegi-aldake-

tak egiteko epea ezarriko da. Maiatzaren 18tik aurrera eskaintza osatu arte dauden plazak eskainiko dira.

Gogoratzekoa da bestalde, tenis, padel eta igeriketako Hastapen ikastaroarena baino maila altuagoa duten ikastaroetan izena emateko beharrezkoa dela maila ziurtatzea izena emateko unean. Horretarako, Kirol arloarekin harremanetan jarri behar da eta maila egiaztatzeko proba egin egun batzuk lehenago.

*Futboleando* ikastaroen kasuan, izenemateak klubekin zuzenean egingo dira. Fadurakoan parte hartzeko Ge-

txo Futbol Eskolarekin harremanetan jarri ahal da posta elektronikoaren bidez ([coordinador.getxofutboleskola@gmail.com](mailto:coordinador.getxofutboleskola@gmail.com)) edo telefonoz (615 982 663); eta Gobelakoan, interesdunek izen-ematea egin dezakete [arenasromocampus@gmail.com](mailto:arenasromocampus@gmail.com) mailaren edo 657 268 606 telefono zenbakiaren bidez. Getxo Kirolak-ek liburuxka bat argitaratu du ikastaroen programarekin. Liburuxka Fadurako eta Gobelako bulegoetan jaso daiteke edota web orrialde honetan behera kargatu: <http://www.getxo.eus/eu/getxo-kirolak/>



## Boxeoko gau-borrokaldea Faduran, ordezkari getxotarrekin

Fadurako kiroldegian boxeoko gau-borrokaldea egingo da ostiral honetan, apirilak 20, 21:00etatik aurrera. Bi borrokalde nagusi izango dira: Jon Fernández Juan Huertasen aurka, batean, eta Guillermo Rivero, Izarrak Boxing Club Getxoko taldekoa, Javier Fuentesen kontra, bigarrenen. Horrez gainera, beste zortzi borrokalde ere jokatuko dira, boxeoko olinpiko onenetakoak, horietan ordezkari getxotar asko direla: Asier Larrinaga, Iker Fernández eta Ander Blanco (Romoko Bunker klube-koak), Jon Pinuaga (Eneko Gym-ekoa) eta Unai Ibáñez (Izarrak Boxing klube-koak).

Guillermo Riverok, pisu super ertainean, etxean jokatuko ditu 2018ko le-

henengo sei roundak. 31 urte ditu eta 2015eko azaroan profesionalean debutatu zuenetik jokatu dituen sei borrokaldeak irabazi ditu. Bere aurkariak, Javier Fuentes madrildarrak, bi garai-pen ditu eta beste horrenbeste galdu ditu. Irabaztekoan, Guillermok estatuko titulua joka lezake, profesionale-tako zazpigarren borroka beteko baitu. Amateur alorrean, boxeolari getxotarra lau aldiz izan da Bizkaiko txapeldun eta beste hiru Euskadikoa.

Sarrerak aldeztu aurretik eros daitezke 17 euroren truke, Romoko Bunker Boxing School-en edo [www.thebox3r.com](http://www.thebox3r.com) helbidean. Sarrerarik balego, gau-emanaldiko egun berean salduko liriteke Faduran, 22€-tik aurrera ordainduz.



## Bizkaiko txapelduna, Getxo Arrauneko nesken batela

Getxo Arraun taldeko nesken batelak Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen iragan igandean, apirilak 8. Sestaoko La Benedicta kaiak hartu zuen denboraldiko azken estropada, ligaxkako maila bakoitzeko bost ontzi onenak bildu zituen, hain zuzen ere, Bizkaiko finalak jokatzeko. Gauzak horrela, junior-senior mailako batela besterik ez zuen

aurkeztu elkarte getxotarrak, azkenean txapela eskuratu zuena.

Izan ere, estropadako agintea hartu zuten Algortako arraunlariek hasieratik. Helmugan, 9:45,69ko denbora egin zuten. Kaiku bigarren postuan sartu zen, hamabi segundora; eta Deustu, hirugarrenean, irabazlearengandik hamazazpi segundo pasatxora.

## V. El Correo Sariaren irabazleak

*Gaitero, Kantarepe Iru, Lasai eta Mandovi* dira V. El Correo Saria irabazi duten belaontziak, nork bere kategorian. *Crucero* eta *J80* monotipoak klaseetako ontzientzat jokatu da. Jardunaldi erabakigarria Abrako uretan egin zen iragan asteburuan, azkenean

ere nabigatu ahal izan zelako. Bestalde, Enrique Arriola Club Marítimo del Abra-R.S.C. elkarteko estropadalaria bikain aritu zen, podiuma lortuz, Euro Láser Másters Cup txapelketan. Calellako Bela Elkartean jokatu zen.